

MINTZAIRA PREBENTZIOA 0-3 URTE



Haurrak zuei esker, buraso eta ingurukoei esker, mintzatzen ikasten du. Liburuxka honek zuen haurraren 3 urteak arte lagunduko zaitu. Mintzaira, ahazkotasuna, aktibitateak, Ortofonisten Federakuntzak gomendatzen zaitu eta zure galderei erantzuten die.

JADANIK 3 HILABETE LASTER 6




ZER EGITEN DU HAURRAK?

Haurra haren gorputzarekin erosoago da, anitzez gehiago mugitzen da. Haren mugimenduak zehatzagoak dira: jostailuak harrapa eta inarros ditzake. **Ahoan anitz sartzen ditu**, deskubritzeko. Begiez segitzen du, koloreak desberdintzen ditu eta hurbilekoan bisaiak ezagutzen. Irriñoez erantzun dezake. Haren izenari ihardukitzen dio.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Niniak arrabots desberdin gero eta gehiago sortuko ditu: lehenik bokalak (“aaaaaa”) eta gero silabak – ele-mele edo haur-elea deitzen **duguna** (“babababa”). Zure hitzei ihardukitzen die, zinezko elkarrietzeta bat balitz bezala. Irri karkailaka aritzen da.



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Haurrak zapore eta testura berriak deskubritzen ditu. Biberoko eta/edo bularreko elikatzea eta koilarakoa, biak hartzen ditu. Bigarren mailako ahozko elikaduraren fasea da.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Niniak arrabotsa egiten duten jostailuak eta joko interaktiboak bereziki estimatzen ditu. Kilikak, aho arrabotsak eta imitazioak maite ditu. Bizi duena komentatzen ahal duzu, inguruan duena, ikusten eta entzuten duena izendatzen, kantuak kantatzen ahal dizkiozu. Haurrari oihalezko liburu ttipiak, pilota bigunak edo txintxirrinak eskaintzen ahal dizkiozu, tapiz batean etzan zenezake haur-karrosan edo etzaulkian baino librekiago mugitu dadin.

NOIZ KEZKATU?

- > harekin mintzatzean niniak ez zaitu begiratzen,
- > ez du irriñorik egiten,
- > ele-mele guti egiten du edo batere ez,
- > xurgatzeko arazoak ditu, guti jaten du.



7 ETA 10 HILABETE ARTEAN

ZER EGITEN DU HAURRAK?

Jarririk egoten da eta beraz objektuak hobe maneiatzen ditu. **Mugituz espazioa esploratu** dezake. Zerbait lotuz xutitzen hasiko da eta, gisa horretan, inguruan duenaren goragoko ikuspegia ukanen du. Haren eguneroko objektuak, pertsonak eta arrabotsak ezagutzen ditu. Begiradaz segitzen du eta arrabotsen iturriari buruz itzultzen da. Erakusten eta galdegiten dizkiozun “adio” edo “txalo” bezalako jestuak imitatzen jakiten hasten da. “Bai” hitza ulertzen du eta “ez” hitzari ihardukitzen dio. Galdeginez gero objektu bat ematen dizu. Haren izena ezagutzen du.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Ele-melea aberastuko da, zure haurrak silaba desberdin **gehiago ahoskatzen ditu**. Helduarekin zinezko elkarrizketan aritzen da, pausak eta intonazioak errespetatuz. Niniak emozio desberdinak argikiago adierazten ditu. Oihukatuz arreta harenganatzen du.



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Jaki lehertuak jaten hasten da eta, 8 hilabeteren irian, zati uxerrak deskubrituko ditu (ongi egosiriko barazkiak, ongi onduriko fruituak). Janaria eskuen bidez laguntzarik gabe ahoratzen ahalko du. Lehen hortzak agertzen diren mementoa da ere. Apairuetan, koilara bakarrik atxikitzeko gogoia agertzen hasten da.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

“Kuku-gorde” jokoan arituz, zoriontzeko eta sustatzeko “txaloak” eginez, kantatzera eta/edo kantuak imitatzen, egiten duena komentatzera edo inguruko jende eta objektuak izendatzera josta zaitezke. Objektuak kukutzera josta zaitezke, xerkatzean jostatzen baita. Irudiak dituzten liburu tikiak, hunkitzeko liburuak edo oihalezkoak eskaintzen ahal zaizkio.

NOIZ KEZKATU?

- > zure ninia pasiboa da edo zure galdeen aitzinean ezaxola da,
- > harekin mintzatzean ez zaitu begiratzen,
- > ez du ele-melerik egiten,
- > koilara hartzen pasatzeko mementoan zailtasunak agertzen ditu (zatien errefusatzera, janari hautaketa), behin eta berriz goragale da edo goitika ari da, ez du aski pisurik hartzen.



12 HILABATEREN IRIAN



ZER EGITEN DU HAURRAK?

Haurra inguruan duen munduarekiko kurios agertzen da, ibiltzen hasten da, objektuak eri-pototsaren eta erakuslearen artean hartzen ditu. Harekin bizi diren jendeak gero eta gehiagotan imitatzen ditu.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Kalakaria bilakatzen da. Haren hitzekin mintzatzen da edo horren ordeztuak egiten ditu. Sistematikoki errepikatzen dituen **hitz batzuk** erraten ditu, “oraino”, “aita”, “ama” adibidez. Elkarriketak imitatzen ditu eta intonazioak errepikatzen. Telefonoz deitzera jostatzen da. Haren ingurukoak deitzen ditu eta, onarpen edo baimenaren xerka, hauen erreakzioak goaitatzen. Gisa horretan “bai-ez” hitzak esperimentatzen ditu. Haren biziko erritualetan hitz gero eta gehiago ulertzen ditu (30 inguru) eta eskas diren eguneroko objektuak aipatzean (biberoi, ñu-ñu, bixkotx, zapeta...).



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Urte bat betetzean bakarrik jaten eta basotik edaten hasten da. Zati ttipi uxerrak jaten ditu.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Harekin erranaldi laburrak eginez mintza zaitezke. Galde sinpleak ulertzen ditu (“eman koilara”, kendu burukoa/txanoa”...). Harekin irudiak dituzten edo arrabotsak egiten dituzten liburuak begiratu eta komenta ditzakezu, haur kantuek kantatu edo entzun, baloiarekin, panpinekin, autoekin... jostatu. Elgarrekin alegia gauzak egitera josta zaitezket: alegia jatea eta edatea, telefonoz deitzea, sendatzea... Kuboak eskaintzen ahal dizkiozu lerrokatzen eta metatzen hasten baita.

NOIZ KEZKATU?

- > zure haurrak ikasi duena galtzen du edo ez da aitzinamendurik,
- > pasiboa da edo zure galdeen aitzinean ezaxola da,
- > harekin mintzatzean ez zaitu begiratzen,
- > ez du ele-melerik egiten,
- > ez du eriarekin erakusten,
- > jarriarik egoteko edo burua xut atxikitzeko zailtasunak ditu,
- > koilara hartzera pasatzeko mementoan zailtasunak agertzen ditu (zatien errefusatzeari, janari hautaketa), behin eta berriaz goragale da edo goitika ari da, ez du aski pisurik hartzen



16 ETA 19 HILABETE ARTEAN



ZER EGITEN DU HAURRAK?

Zure haurra gelan ibiltzen da, objektuak mugitzen ditu, jostatzen da. Batzuetan bakarrik josta daiteke eta beste batzuetan aktibitate baterako dei zaitzake edo laguntza galdegin. Gero eta hitz gehiago ulertzen ditu eta objektu eta gorputz atal batzuk izenda ditzake.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Bizi eta senditzen duenaz mintzatzeko hitzak baliatzen hasten da (7 eta 20 artean). “mintzatzen” da. Emeki-emeki bi hitz elkartzen hasiko da “ama joan”, “panpina erori”, “kamioia hautsia”...), ohiko erranaldiak erraten (“ezta gehio”, “eztut nahi”). Jestuak eta galdeak egin ditzake, **eriarekin erakutsi**... Mintzaira aberasten doa, 2-3 urte arte iraunen duen hiztegiaren zinezko biderkatzearekin. Gero eta gehiagotan erranak **errepikatzen** hasiko da.



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Elikadura dibertsifikatua du. Badaki koilara atxikitzen eta zatiak jaten ditu. Basotik edaten du.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Gero eta gauza gehiago kondatzen eta esplikatzen ahal dizkiozu, zure haurrak **mintzaira ereduak** ukan ditzan ahalbidetzen du horrek. Zure haurraren hitz eta erranaldiak berriz formulatu ditzakezu: “kakurra ua ua”, “bai egia, xakurra zaunkaka ari da, au au egiten du”. Ipuin ttipiak begiratu eta konda ditzakezu, haur kantuen kantatu edo entzun.

Jostatzeko ontzi zerbitzua, auto ttipiak, animalia eta pertsonaien iruditxoak edo ahokatzeko jokoak proposatzen ahal dizkiozu. Jokoetako pertsonaiekin sentimendu eta emozioak lotu ditzakezu: kontent, kexu, triste, gose izan, logale izan...

NOIZ KEZKATU?

- > harekin mintzatzean zure haurrak ez zaitu begiratzen,
- > ez du hitzik erraten,
- > ez du jestu sozialik baliatzen (egun on, adio, txalo),
- > ez du eriarekin erakusten,
- > koilara hartzera pasatzeko mementoan zailtasunak agertzen ditu (zatiek errefusatzeko, janari hautaketa), behin eta berriz goragale da edo goitika ari da, ez du aski pisurik hartzen.



2 URTEREN IRIAN



ZER EGITEN DU HAURRAK?

Joko sinbolikoa agertzen da. Helduen jokamoldearen **imitazio jokoaz** mintzo gara: haurraz arduratu/aita-ametan jostatu, bazkaria prestatu/kozinaka ari izan, medikuarengana joan/medikutara jostatu... Eskailerak igotzeko gai da, baloia ostikatzen du, objektuak arrastaka eramaten ditu. Erranaldi gero eta konplexuagoak ulertzen ditu.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Hiztegiko **50 hitz** inguru baliatzen ditu 2 edo 3 hitzeko erranaldiak balia ditzake. Galderak pausatzen ditu, eskariak formulatzen. Haren izena aipatuz mintzatzen da. Eguneroko biziko objektuen izenak ezagutzen ditu (jantzi, jaki, joko batzuen izenak). Galdeginez gero haren gorputzaren atal desberdinak erakuts ditzake. Buru egiten hasi zaizu “ez” erranez.



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Bakarrik, eskuekin edo koilararekin jan dezake, elikadura anitza du. Basotik edaten du.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Zure haurrarekin gero eta elkarrikeria gehiago ukan ditzakezu: objektuak, irudiak, jendea izendatuz, liburuak irakurritik eta gertatu edo jinen diren aktibitatez mintzatuz. Loto edo irudiak pareka sailkatzeko jokoak (memory) proposatzen ahal zaizkio.

Haurra perla handiak ari batean lerrokatzen has daiteke, arkatzarekin, igeltxoarekin edo margoarekin marrazten has daiteke eta harekin formak eta marraz marraz ditzakezu.

NOIZ KEZKATU?

- > harekin mintzatzean zure haurrak ez zaitu begiratzen,
- > ez du hitzik baliatzen edo komunikatzeko guti batzuk soilik,
- > ez ditu ez haren izena ez “ni” baliatzen,
- > ikasi duena ahanzten du edo ez da aitzinamendurik,
- > ez ditu eguneroko biziko egoerak imitatzen,
- > ez ditu gauzak eriarekin erakusten,
- > koilara hartzera pasatzeko mementoan zailtasunak agertzen ditu (zatien errefusatzeko, janari hautaketa), behin eta berriaz goragale da edo goitika ari da, ez du aski pisurik hartzen.
- > Usu otitisa du.



2 URTE ETA ERDIEN IRIAN



ZER EGITEN DU HAURRAK?

Haurren nortasuna sendotzen da. Mugak kitzikatzen ditu eta samurraldi gorriak ukan ditzake. Eskuekin gero eta trebeagoa da. Lehen pertsonaiak (pertsonaia aratxeburuak) marrazten hasten da. eskailera gora doa, baloia ostikatzen du, jauzi egiten...

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

Ni hitzaren adina da. zehatzagoa izaten hasten da eta haren inguruko erranaldiak anitz kopiatzen ditu. Aditz eta adjektiboak baliatzen ditu. Jostatzean istorioak kondatzen ditu. **Galderak** (nun? Nor? Zergatik? Noiz?) pausatzen ditu. Liburu bera behin eta berriz irakur diezaioten galdegin dezake. Manu konplexuenak ulertzen ditu. Kolore batzuk ezagutzen ditu, bat eta batzuk bezalako nozioak, familiako kideak, espazio erran-moldeak (goiti/beheiti, gainean/azpian, barnean/kanpoan...).

nirea da

ez, nire nirea



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Bakarrik, eskuekin edo koilararekin jan dezake eta elikadura anitza du.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Zure haurrak galdera anitz pausatzen du eta pazientzia hartu behar duzu erantzuteko! Mahai jokoak proposatzen has zaitezke eta haren adinerako egokiak diren hezkuntza jokoak: loto, puzzleak, ahokatzeak... Eguneroko biziko egitekoetan parte harraraz zenezake.

Denetan segitzen zaitu eta zure jestu eta espresioak kopiatzen ditu.

NOIZ KEZKATU?

- > harekin mintzatzean zure haurrak ez zaitu begiratzen,
- > 50 hitz baino gutiago baliatzen ditu eta ez du hitz elkarketarik egiten,
- > ez ditu eguneroko biziko egoerak imitatzen,
- > behin eta berriz goragale da edo goitika ari da, zatiak errefusatzeko ditu, janaria hautatzen du, ez du aski pisurik hartzen.



3 URTEREKIN

ZER EGITEN DU HAURRAK?

Zure haurrak triziklo batean pedala dezake, pedalik gabeko bizikleta baliatu. Bi oinak loturik jauzi egiten du. Bakarrik janzten da, aizturak baliatzen hasten da, borobilak edo laukiak arkatzez marrazten ditu.... Ipuinak asmatzen ditu, objektuei beste erabilera bat ematen die (Lego bat telefonotzat hartzen adibidez). Hiru arte konda dezake.

ZER ERRATEN DU HAURRAK?

400 eta 900 hitz inguruko hiztegia baliatzen du, erranaldiak luzatzen dira eta “eta, ...endako, ...ean, ...rekin ...” bezalako atzizkiekin hedatzen. “**NI-ENEA**” erabiltzen ditu. Gero eta argiagoa da, hizkuntzaren abantzu soinu guziak erraten daki. Beste hurrekin mintzatzen da, lagunak egiten ditu.

Eskolako kantuak kantatzen ditu, besteak imitatzen ditu. “Noiz? Zendako” galderak ulertzen ditu... Ipuin tipiak entzun eta ulertzen ditu.

eta zergatik?



NOLA JATEN DU HAURRAK?

Bakarrik, eskuekin edo koilararekin jan dezake, elikadura anitza du. Ttuttua, biberioia edo eri-pototsa bazter dezan erraten hasteko mementoa da.

HAREKIN NOLA MINTZATU, NOLA JOSTATU?

Gero eta autonomoagoa izatera bultza dezakezu (janztean, komunean...); hertsatu gabe entzun, haren heinean ezarri; denboran kokatu dadin iragan diren edo jinen diren mementoek harekin mintzatu eta begiratzen edo bizi duena esplikatuz, inguratzen duen horretan hitzak ezar ditzan; lotu; memory, kuzina, eraikuntza jokoak, puzzleak proposatu.

Marrazketa, ore, perla sartze aktibitateak ere proposatzen ahal zaizkio.

NOIZ KEZKATU (ARRANGURATU)?

- > ez dirudi zure haurrak hitz berririk ikasten duenik,
- > ez du erranaldirik egiten edo ez die galderei erantzuten,
- > ez da erranaldi sinpleen bidez galdegiten zaiona egiteko gai,
- > ahozko komunikazioan ez du sekulan iniziatiba hartzen,
- > ikasi duena ahanzten du edo ez da aitzinamendurik,
- > jokoetan ez ditu haren ingurukoak imitatzen,
- > harekin mintzatzean ez zaitu begiratzen,
- > mintzaira ulertezina du edo sistematikoki eta molde desegokian errepikatzen du
- > hitzekin asaldatzen da, hitzen hastapenak errepikatzen ditu,
- > behin eta berriz goragale da edo goitika ari da, zatiak errefusatzen ditu, janaria hautatzen du, ez du aski pisurik hartzen.



ETA PANTAILEKIN ZER?

Ortofonistek 3 urteak aitzin pantailen aitzinean ezartzea saihesteko gomendioa egiten dute. Garai horretan zure haurra funtzio motorraren, mintzairaren, zentzumenaren garapen betean da. Haren inguramenarekin komunikatzeko, objektuak manipulatzeko, jostatzeko, esperimentatzeko beharra du, baldintza onetan garatu eta ikasteko gisan.

Hezkuntza programek, marrazki bizidunek, aplikazioetako jokoek ezin dituzte ordezkatu egiazko harremanak eta objektuen manipulazio aktibitateak.

Gaur egun, pantailak gure egunerokoaren parte dira, etxean, karrikan, dendetan... atzeman genitzake. Horregatik baitezpadakoa bilakatu da hurrei nola baliatu behar diren irakastea.

GOMENDIO BATZUK

- > pantailarik gabeko elkarrekintzak, objektuen, jostailuen eta liburuen manipulazioa, haurra inguratzen duenaren eta inguruan gertatzen denaren berbalizazioa faboratu,
- > pantailaren aitzinean egotea ahal bezain bat mugatu,
- > pantaila aitzinean gertatzen bada, hedatua dena haurraren adinerako egokia dela bermatu, begira den artean haren ondoan egon, haurrari begiratzen duena, gertatzen dena esplikatu.



HELEBITASUNA

ETXEAN HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO MINTZATZEN DITUZUE?

Haurrarekin zure ama hizkuntzan mintza zaitezke, haurdunaldian zehar entzun duena baita. Fite jakinen du etxean bakoitzak baliatzen duen hizkuntza identifikatzen eta haren mintzaira egokitzen.

2 edo 3 urterekin zure haurra erranaldi berean hizkuntza batetik bestera pasatzen bada ez kezkatu! Eskas dituen hitzak salatzen ahal dizkiozu haren hiztegia aberastu dadin.

NOIZ KEZKATU?

2 urtetik goiti, zure haurrak mintzatzen dituen bi hizkuntzetan mintzaira zailtasun berdinak agertzen badira: hiztegi biziki mugatua, erranaldi osorik eza, mintzaira ulertezina, ulermen eskasa, totelaren agertzea.



Edozein adinetan, kezkarik baldin baduzu, zure medikuarekin aipa ezazu!

FNO
27, rue des Bluets
75011 PARIS
www.fno.fr

Parution : juin 2021

Illustration & graphic design:
Virginie Barbellion

